


pinpilean

SORALUZKO
HAMABOSTEKAR
111. alea 2005ko
maiatzaren 13

YOGA

oreka fisiko
eta mentalaren bila




www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA
EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tfnoa : 943 20 18 44





Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.

Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxe: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

ZORIONAK!
segi aurrera euskararen
normalizazioaren bidean





ELENE ALBERDI DE LA HAYA

Ezin dut ulertu...

Azkenaldian Soraluzen etxe andana ari dira eraikitzen. Kanpotik hainbat jende etorri da gura, inguruko herrietan etxebizitza eros- tea ezinezkoa bihurtu delako, eta gure herrian, le- hen behintzat, merkeagoak zirelako. Aditza lehenal- dian erabili dut bai, azken asteotan entzun dituda- nek oilo-larrua ipini didatelako!

Baina, nola da posible Soraluzen **50 milioi, 300.500 euro**, (oraindik pezetak burutik kendu ezinda nabil eta) eskatzea etxe batengatik? Ezin dut ulertu, ero- tuta al gaude.

Etxebizitzak geroz eta garestiagoak dira, eta badirudi horrek ez duela ete- nik. Etxebizitza duina izateko eskubidea jasotzen duen Giza Eskubideei buruz- ko Nazio Batuen Adierazpenaren 25. artikulua utopia hutsa da. A ze panorama duten etxetik atera nahi duten gazteek, horrela jarraituz gero Emancipator tele- bistan iragartzen duten asmakizuna lortzea ere ez da erraza izango eta!

Asko eta asko hainbat lagunekin batera bizi dira alokairuan, baina egun errentak ere garestiak dira oso. Egia da jabetza gure gizartean oso errotuta da- goela. Gure etxea eduki nahi dugu, eta hori aldatzea zaila da. Baina zerbait pentsatu beharko genuke, batez ere ondorengo datu hauei erreparatuz gero: Ja- betza Erregistratzaileen Elkargoak zabaldukoaren arabera, iaz bigarren esku- ko etxebizitzek **%17,35** egin zuten gora, etxe berriek baino hiru puntu gehiago, eta metro karratuak **32.524 euro** balio zituen. Hauxe, berriz, Etxebizitza Guz- tiontzat plataformak gaineratutakoa: **146.446 etxe** hutsik zeuden Hego Euskal Herrian 2004an.

Tira, eta etxebizitzei buruz ari garenez, beste kontu bat aipatu nahiko nuke, Gipuzkoako Etorbideko, 4., 6., 8. eta 10. atariko auzokideei zuzenean eragin diena.

Itxi ezin diren leiho eta ateak, horma eta sabaiak arrailaz josita, zartadurak eraikinen aurrealdean, espaloiak apurtuta... horixe da pareko etxea eraikitzen hasi zirenean gertatutakoa. Begi bistakoa da lan horiek eragin zituztela aipatu- tako kalteak, horretarako ez da eraikuntzan aditua izan behar eta.

Ordutik denbora pasa da, eta oraingoz bizilagunek ez dute enpresa eraiki- tzailearen ezta promotoraren babesik jaso. Are gehiago, bizilagunek beraiek or- daindu dituzte euren etxeen zimenduak kaltetuta zeuden jakiteko beharrezkoak ziren ikerketa eta txostenak; egun batetik bestera, inolako errurik izan gabe, etxean zartadurak eta beste hainbat kalte topatu zituzten herritar horiek, hain zuzen.

Kaltea eragin duenak ardurak bere gain ez hartzeak sutan jartzen nau, eta luzera joko duela uste dut. Susmo hori daukat, auzokideak nekatu eta, azkene- an, etsitzen badira, ardurak ez hartzea errazagoa delako.

Telegrapak

Muxu!. **stop.** gure irakurle orekaza- liorri. **Stop.** Oreka. **stop.** esaten eta egiten dogunaren arteko oreka. **stop.** irabazten eta gastatzen dogu- naren arteko oreka. **stop.** gehien irabazten daben eta gutxien irabaz- ten daben arteko oreka. **stop.** barne goguari eta fisikuari arte- ko oreka. **stop.** Badira euren bizi garapena orekara bideratzeko aha- legina egiten dabenak. **stop.** Yoga praktikatzia da ahalegin horren adi- bidietako bat. **stop.** Lurralde Planak be oreka bilatzia bihar leuke izan helburu. **stop.** ingurumenaren eta hirigintzaren arteko oreka. **stop.** Debabarrenian jentia barrukaldeko herrietatik kostaldekuetara eruatia da asmua. **stop.** Eibar eta Soraluzetik esaterako. **stop.** horrek esatia nahi dau kanposantutik gora ez dala etxerik eraikiko? **stop.** ezin jakin. **stop.** etxiak merketzian ingu- ruan ez diño ezer. **stop.** Aisialdi eskeintza haunditza da beste hel- buruetako bat. **stop.** ez litzake gauza txarra eskeintza horrek ze prezio izango daben be jakitzia. **stop.** Oñatiko golf zelaikua baino merkiagua izango ete da behintzat. **stop.** guk antzoki edo kultur etxe batekin nahikua genduke hasteko. **stop.** ezta?. **stop.** gainontzeko kon- tuetan; errepide, fabrika... **stop.** hortik ondo zerbiduta gare. **stop.** gainontzian. **stop.** antzerkia, kon- tzertuak, futbola... **stop.** eritziak. **stop.** danetik pixkat dakargu. **stop.** orekatu zaitezen. **stop.** muxu!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonoa 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,
Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka
Salaberria eta Egoitz Unamuno.

Publizitatea:

Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Azala: Silvio Vaz Caro
Diseinua eta Maketazioa: Silvio Vaz Caro
I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarrekin ez du bere gain hartzen aldizkari- ko esanien eta intzienten erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jaso- tzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



Erreportaia

Mendebaldeko kulturaren gero eta jente gehiago ari da azken hamarkadetan ekialdetik datozen teknika eta ariketa desberdinak erabiltzen. Horietako bat da yoga, duela **5000 urte** Indo ibarrean gizakiaren alderdi fisiko zein psikikoa lantzeko helburuarekin sortu zena.

Zorion agurrak



Amaia Aldazabal

Maiatzaren 21ean

Zorionak guapa !!!

Edurtza kafetegiko lagunez partez.



Lara Ballesteros

Maiatzaren 30ean, 7 urte.

Zorionak eta mila muxutxo!!

Etxekuen partetik.



Vicente Vaquerizo eta Ester Azcarate

Maiatzaren 14an Urrezko Ezteiak

Zorionak Aitxitzia eta Amama !!!

Urrezko Ezteiak pozik pasau, 50 urte ezkontuta ez dia beti egiten eta!
Zure bilobak.

Zorionak Aintzane ta Cesar !!!

Apirilaren 30a

Ezkonbizitza bodia bezain ona izan deia animatu ta ia noiz itxen gaitxuzuen TI@ kuadrilakuak.



1962an jaiotakoen bazkaria

NOIZ: **ekainaren 11an 14:30etan**

NON: **Txurruka jatetxean**

IZENA EMATEKO: **943751581 telefonora** deituta ekainaren 4-a baino lehen.
(14:00etan Txoko tabernan elkartuko dira).

jaiotakoak

Eneko Alvarez Basauri

hildakoak

Maria Mendibil Astarloa
Eloísa Sánchez Gutiérrez

ezkonduak

Josune Casares
eta Mikel Alberdi

Iragarkiak

Zarautzen etxea alokatzen da Etxebizitza alokatzen da Zarautzen udan, asteburuetan edo zubietan. Hondartzatik gertu dago.
Telef. 685718454

Umeak zaindu eta etxekolana egiteko pertsona bat behar da soraluzeko etxe batean. Interesatuak deitu **669 49 83 18** telefono zenbakira.



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

lehiaketa

Euskal Herriko II. Graffiti Lehiaketa

15 urte baino gehiago duten Euskal Herriko edozein gaztek parte hartu ahal izango du.

- Bakarka nahiz taldeka.
- Gaia libre.
- Graffitiaren marrazki bozetoa aurkeztuko da DIN A3 formatuan eta koloretan.
- Aurkeztutako guztietatik 10 aukeratuko dira eta uztailearen 16an Getxon, goizeko 10:00etatik aurrera lehiatuko dira. **1.200 euroko** lau sari banatuko dira.

Informazio gehiago, **946 21 51 16**
(Euskara Elkartearen Topaguneko Gazte Saila) telefonoan edo gazteak@topagunea.com helbidera idatzita.

ekintzak

Auzolandegia Beran.

Berako herri hondarea (baderoak eta kisu-labeak) konpontzeko lana.

Uztailean zehar 10 egunetako hiru txanda egingo dira:

- Ekainaren 29tik uztailearen 8ra DBH-koentzako (12-16 urte)
- Uztailearen 10etik uztailearen 19ra Batxilergokoentzako (16-18 urte)
- Uztailearen 21etik uztailearen 30era 18 urtetik gorakoentzako.

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero jo Pil-pileanera.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

ARRANO tabernia

Telefonoa 75 24 09

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK
etxera

Zer irizten dotsazu?

Martxoaren 21ean Espainiako Kongresuak sexu bereko pertsonen ezkontzeko aukera ematen dien lege berria onartu zuen. Ezkontzak legeztatzeaz gain, haurrak adoptatzeko eskubidea ere aitortzen du lege berriak. Ezustekorik ez bada, Gorteetan edo Kongresuan onartuko da lege berria eta aurten jarriko da indarrean.

Ze eritzi duzu sexu bereko bikoteen ezkontzen legeztatzeaz?



Hana Bergouit

23 urte ikaslia

Mundu guztiak eskubidia dauka baina nik bikote honek ez ditut ulertzen, nere ustez gizonak emakumiekin egon bihar dabe eta emakumiak gizonekin umiak eukitzeko. Adoptatziakin ez nago ados, gu ez ginake hemen egongo nere aita beste gizon batekin egon balitz.



Antxon Altuna

52 urte jubilatua

Nik kontrari ez daukat ezer, beste jendakiak ez badira sartzen eta bere bizimodua hola bada ba ondo ikusten dot. Adoptatzekua beste arazo bat da, umeak zela egongo diran kontuan izan bihar da.



Felipe Almaguer

37 urte irakaslia

Oso ondo iruditzen jata ezkontzeko eskubide osua dauke. Adoptatzeko eskubidiaren alde be banago. Erakutsi leike badarela guraso homosexualak bere seme alabak ondo hezi dituztenak.



Mercedes Hurtado

55 urte etxeoandria

Mundu guztiak dauka eskubidia ezkontzeko. Bakoitzak jakingo dau ze egiten daben bere bizitzakin. Adoptatzian alde ez nago, umiendako onena zer dan begiratu bihar da.



Porfi Casas

69 urte dendarixa

Ezkontzeko eskubidiarekin ados nago. Nahi dabenak eskubide osua dauka. Adoptatziarekin berriz ez nago ados, umiak zela egongo diran pentsau bihar da.



Jesus Altuna

50 urte igeltserua

Neretako bai. Badare ideiak kontrari baina errespetatu egin bihar dira. Adoptatzeko eskubidiarekin ados nago baina hau delikaua da.

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g
138 Postakutxa

tf: 943752150
Faxa: 943752118

SORALUZE



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Desadostasunak

Debabarreneko Lurralde Planarekin



Jaurlearitzak Debabarreneko Lurralde Plana onartu berri du. Planaren helburua, datozen 16 urteetan eskualdearen jasagarritasuna bermatzea izango da, eta bertan zehaztu eta mugatzen da Debabarreneko Udal bakoitzak azpiegiturretan, etxebizitza berrien eraikuntzan eta ingurumen alorrean jarraitu beharreko eginkizunak

419 ETXEBIZITZA BERRI SORALUZEN. Desadostasunik haundienak etxebizitza berriei mugak ezartzean etorri dira. Izan ere, planaren helburuetako bat Soraluze, Eibar eta Ermuako bizilagunen hazkundera gutxitzea izango da, Deba eta Mutrikuko bizilagunen hazkunderaren mesedetan Eskualdean 8519 etxebizitza berri eraikitze baimena eman du Jaurlaritzak, horietatik 3000 Mutriku eta Debako herrietan. Barnealdeko udalak elegiteak

aurkeztu dituzte hasieran zehazten ziren etxebizitza kopurua haunditzearen. Sorlauze udalak egindako elegitea onartu du Jaurlaritzak, eta hasiera batean 291 etxebizitza berri eraikitze baimena eman bazuen ere, datozen 16 urteetan 419 etxebizitza berri eraiki ahal izango dira, horietatik 315 lehenengo 8 urteetan.

INGURUMENAREN ALORREAN, Izarraitz eta Arno interes komuneko naturgune izendatu dituzte.

GARRAIO ETA ERREPIDE SAREARI DAGOKIONEZ, Maltzaga gune zentral bihurtzeko egitasmoa jasotzen du planak. Bestalde, Soraluze udalak egindako elegitea kontuan hartuko dutela adierzi dute Lurralde Planeko antolatzaileek, Maltzaga eta Soraluze lotuko dituen bidegorria egiteari erreferentzia egiten diona hain zuzen ere.

EPA eta Musika Eskolako matrikulazio kanpaina

Soraluzeko Helduen Hezkuntzan eta Musika Eskolan matrikula egiteko epea zabalik da jada. EPAn, maiatza bukaera arte izango da izena emateko aukera, eta eskeintzen dituen ikasgaien artean alfabetizazioa, kultura orokorra, atzeritarrendako ikastaroak, ingelesa eta euskera, informatika, bigarren mailako graduatua eta eskulanak egiteko tailerrak daude. Musika eskolan berriz, ekainaren 11 n bukatuko da matrikulatzeko epea. Maiatzaren 18an, asteazkena, audizioa egingo dute frontoian 4-5-6 urteko umeak datorren ikasturterako instrumentuak aukera ditzaten.

Arraikuako urbanizatze lanak

Joan den maiatzaren 5eko Udalbatzarrean Arraikuako urbanizatze lanen proiektua onartu zen aho batez. Lan hau, Izartu II programaren barruan egingo den lehenengo izango da eta **150.000 euroko** kostua izango du. Arraikua inguruak kurioso jarri, parke txiki bat egin eta bertako etxietako bizilagunendako pasabide berri bat egingo da.



Jai batzordea deitu du Udalak

Udalak herriko jaiak antolatze bako jai batzordea deitu du datorren ostegunerako. Bilera Udaltxean izango da arratsaldeko 8etan eta nahi duten herritar guztiek har dezakete parte.

Udalak baiezkoa Aalborgeko gutunari

Maiatzaren 5eko Udalbatzarrean aho batez onartu zen Aalborgeko gutunari -*Europako Hirien Gutunari*- atxikimendua adieraztea, eta prestutasuna agertu zuen Udalak gutunean agertzen diren konpromisuak betetzeko. Europako Hirien Gutunak inguru urbanoen eta naturaren arteko oreka bilatzeko proposamenak egiten ditu.



HNOS. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)




EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



Jubilatuen txangoa

Jubilatuen etxeak txangoa antolatu du datorren maiatzaren 19rako. Arantzazu, Loiola eta Zumaia dira bisitatuko dituzten lekuak. Izena jubilatuen etxean eman beharko da.

Basarritarrak Arratera San Isidro ospatzera

Arraten ospatuko dute Debabarrenako baserritarrek San Isidro eguna maiatzaren 15ean, igandean. Debemenek antolatuta, egun guztiko jaia egingo da Arrateko zelaietan baserritarren patroia omentzeko. Bertara joan nahi duten baserritarrendako autobusa jarriko da igandean goizeko 9:30 etan. Itziar, Deba, Mendaro eta Elgoibarko baserritarrak batu ostean autobusa Plazentziara iritsiko da, eta bertatik Arrateruntz egingo du. Bazkaritarako txartelak udaletxean daude salgai. Bazkari ostean herri bakoitzeko baserritarrik zaharrenak erregalo bat jasoko du.

Herriko 25 Elkartek jaso zuten BAI EUSKARARI ziurtagiria

Joan den maiatzaren 4an, BAI EUSKARARI ziurtagiri banaketa egin zen abade-tzeko kapillan. Ekitaldian, Udaleko ordezkariak, euskalgintzako ordezkariak, euskera teknikariak eta Kontseiluko idazkari nagusia Xabier Mendiguren izan ziren ziurtagiriak banatzen. Ziurtagiriak jasotzen, berriz, euren taldean euskeraren aldeko konpromezuak hartu dituzten herriko 25 talde. Hauek izan ziren, 2. urtez, euskeraren alde lan egiteko konpromezua hartu zuten 25 taldeak: Allegro, Arrano, Atxolin guraso elkarte, Euskal jai Batzordea, Ezoziko Ama Abesbatza, Ibai Eder elkarte, Ibilixan ibilixan bertso eskola, Keixeta guraso elkarte, Kontrargi argazki kolektiboa, Lagun Maitea Elkartea, Mahastia, Motoclub, Musika Eskola, San Andres, San Inazio, Soraluze Futbol Taldea, Soraluzeko Mendi Taldea, Soraluzeko Pelota Taldea, Soraluzeko Etxerat, Gazte Asanblada, Odol emaileak, Txuri Urdinak, Txirrindulari elkarte, Ukandi Judo taldea eta Urrats Dantza Taldea.



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5
Tfnoa 943 75 18 91
Faxa 943 75 24 58
E-maila: etxehun@teletel.es
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE
Gipuzkoa

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

HORTZ KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

AISIALDIRAKO

BESTE AUKERA

Mendebaldeko kultura gero eta jente gehiago ari da azken hamarkadetan ekialdetik datozen teknika eta ariketa desberdinak erabiltzen. Horietako bat da yoga, duela 5000 urte Indo ibarrean giza-kiaren alderdi fisiko zein psikikoa lantzeko helburuarekin sortu zena.



Sabin Perez de Labeaga

ELKARRIZKETA

"Bertrand Russelek diño zibilizaziñuan azken produktua dala aisialdia era inteligente baten betetzia"

Zer yoga mota egittten dozue?

Hata-Yoga daka izena. 5 puntu lantzen dittugu : asana (ariketa fisikuak), Pranayama (arnas ariketak), erlajaziñua, elikadura eta meditaziñua (pentsamentu positibua).

Gero eta arreta gehixago jartzen dotsagu yoga, taichi, eta antzerakueri?

Bertrand Russelek diño zibilizaziñuan azken produktua dala aisialdia era inteligente baten betetzia. Holako teknikak praktikauaz norberak beran burua zaintzia "era inteligente" bat pentsatzen jata. Gaur egun medikuak be ariketa honek egittia proposatzen dabe, fisikoki eta mentalki ondo mantentzeko.

Zertarako da ona yoga?

Yogak balio dau geldialdi bat egin eta gure bizitzaz ohartzeko. Gure tensiñuak entzun eta barrenian baretasun gune bat sortzia da helburua, oreka fisiko eta mentala lortzeko. Maisu batek esaten dau yoga ez dala terapia bat, baina terapiarik onena dala.

Zuk ze bentaja igarri dozu?

Problemak disolbatzeko baliagarria da, ez konpontzeko. Errudunak billatu biharrian, gertatzen diran kausak irakusten dotsuz. Fisikoki, belaunetako artikulaziñuetan arazuak nekazen eta ezin neban antxixiketarik egin. Gaur egun ez dakat arazorik.

Noiz hasi zifian yoga praktikatzan?

Oin dala 4 urte hasi nitzan Nafarroako eskola baten. Sivananda kursua be egin neban; ni be ikaslia naiz beraz. Ikasi dotena konpartidu eta praktikan jartzen dot.

Zela definidu leike yoga?

Yoga bizitzarako filosofia bat da, pertsonian bilakabide eta garapenerako sistema bat. Indian daka jatorrixa eta azken helburua da gorputz osasuntsu baten gogo (mente)jiraunkor bat lortzea.

Soraluzen ere bada aukerarik yoga praktikatzeko. **Jabi Zabala** eibartarrak eta **Sabin Perez de Labeaga** plazentziatarrak kiroldegiko etxean ematen dituzte eskolak, astelehenetik ostiralera, goizez zein arratsaldez.



Begoña Txurruka

Urrian lehenenguetan hasi nitzan, ejerzizio pixkat egin eta erlajatzen ikasteko. Hasieran pentsatzen neban ez nebala egingo ejerzizio asko, gogorrago neguala, baiña azkenian ixa danak egitten dittut. Arnasketa ariketekin ondo konpontzen naiz, lehenago be koruan ikasitta nago eta. Hobeto nabil oin, askoz agillago; hamendik urtetzen dotenian trankillago nago eta hobeto egitten dot lo. Oso pozik nago eta rekomendau egitten dot gaiñera.

Lola Sánchez

Gaixotu nitzanian, naturista batek esan zotan yoga egittia ona zala eta orduan hasi nitzan, igezko urrian.

Gorputza askatzia bihar neban eta oin askoz soltiago nabil. Oindiokan estiramentuak eta arnasketak hobeto koordinatu bihar dittut baiña poliki-poliki banoia gehixago soltatzen. Arnasketak eta erlajaziñuak barruak sentitzen laguntzen dosta.



Txaro Maiztegi

Otsailetik hona igarri dot bentajia. Bizkarreko arazuak nekazen eta hamen asko soltau naiz. Flexibilidadia lortu dot eta oin ariñago nabil. Beste alde batetik neretako denboria bihar neban eta yoga egitten kanpoko arazuak ahaztu egitten dira. Harrittuta geratzen naiz zela euki leiken personiak kapazidadia perfekziño honetara heltzeko; zelako pazientzia eta mentalidadiakin landu leiken gorpuzta. Mirari moduko bat pentsatzen jata.

Edu Pombar

Otsailian hasi nitzan. Pentsatzen neban zeozer arrarua-gua izango zala, meditatzia edo, baiña gehixago da ariketak egittia eta horren bittartez lasaitzia. Deskonektatzen laguntzen dosta. Fisikoki be hobeto nago. Lehen ez neban kirolik egitten eta igarri dot aldaketia. Astian 3 ordu egitten doqu eta denbora tarte hori da zuretao bakarrik.

Dana ahaztutzen da.

[illegible]

Instalazioak
Berrikuntzak



KIRU
muntaiak

Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

**Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.**

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 76 99 85
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

Kontzertuak eta antzezlanak

Gaztetxean



Kilikolo Antzerki Taldea maiatzaren 1ean eskeini zuen antzezlanaren ostean

Gaztetxean kultur ekintza desberdinez gozatzeko aukera dago aspaldi honetan. Maiatzaren lehenengo egunean Kili-kolo antzerki taldeak mutazioari buruzko antzezlan taula-ratu zuen. Maiatzaren 9an, berriz, Cristina, Matxura, Whitewood eta Lukestar taldeen kontzertua entzuteko aukera izan zen.

Datozen egunetan ere musika eta antzerkia izango ditugu.

Maiatzaren 13an Napoka Iriak Kontzertu akustikoa eskeinitako du 22:30etan eta maiatzaren 15ian

Zirika agendaren barruan "The desformation suicidas" antzezlanak izango da ikusgai.

Musika Eskolen Festa Elgoibarren

Larunbatean, maiatzak 14, Euskal Herriko Musika Eskolen festa erraldoia ospatuko da Elgoibarren. Egun osoan zehar, 3000 musikari baino gehiagok 45 musika-orduko emanaldia eskeiniko dute Elgoibarko 9 gune desberdinetan. Plazentziako musika eskolakoak ere bertan izango dira.

Goizeko 10:30etan, piano, bateria eta biolin kontzertua eskeiniko dute Musika Eskolan. 11:30etan, berriz, Abesbatzako 20 ikasleek saioa eskeiniko dute Giza Eskubideen Enparantzan eta 12:15etan Pop-folk saioa emango dute Aita Agirre Plazan. Arratsaldean, 15:45etatik aurrera, Euskal Herriko Musika Eskolen elkarteko txistulari eta trikitilari taldearen txanda iritsiko da, eta bertan Soraluzeko musika eskolako bi txistularik eta 7 trikitilari eta 4 panderojolek hartuko dute parte.

Bestalde, Musika Eskolatik jakinarazi digute 2009. urteko musika eskolen festa Plazentzian antolatuko dela.

Kaleko XII. Margo Lehiaketa

Datorren maiatzaren 29an, igandea, **Kaleko XII.** Margo lehiaketa ospatuko da Soraluzen. Izen-ematea Udaletxeko Zinegotzi-Gelan egingo da igandean bertan goizeko 9etatik 10etara bitartean eta partehartzaileek, beren lanak burutzeko beharrezkoak dituzten material eta tresna guztiak ekarri beharko dituzte. Lehiaketaren gaia Soraluze izango da.

Getariara udalekuetan

Pil-pileanek antolatuta, LH 3, 4 eta LH 5, 6 mailako gaztetxoak Getariako Udalekuetara joango dira, Uztailearen 11tik 16ra lehenengoak eta uztailearen 1etik 10era bigarrenak. Izena maiatzaren 16tik 31ra bitartean eman ahal izango da Pil-pileanen egoitzan. Aurten, Elgoibarko neska-mutilekin joango dira.

Euskara Sencilloaren MANIFIESTOA

**Maiatzaren 27an (22:30etan)
Soraluzeko Gaztetxean**

Laguntzailea:



MIKEL PATXO
MARTINEZ TELLERIA
BI KOTE Estrada



Patxo Telleria
Mikel Martinez

Antolatzailea:



EUSKALIZANDIA
EUSKALIZANDIA
EUSKALIZANDIA
EUSKALIZANDIA
EUSKALIZANDIA

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

**Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!**

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



Juan Mari Arraindegia

**Eguneroko
arraina
eta konjelatuak**

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



Mikel Martinez

Aktorea

"Euskarazko antzerkia inoiz baino hobeto dago"

Mikel Martinez aktoreak "Euskara sencilloaren manifestua" antzezlan eskeiniko du maiatzean Gaztetxean.

Maiatzaren 27an, Pil-pileanek antolatuta eta Kultur Errota zirkuitoaren barruan, Mikel Martinez eta Patxo Telleriak "Euskara sencilloaren manifestoa" antzezlan ezaguna eskeiniko dute Gaztetxean. Euskararen eta euskaldunberrien gaia lantzen duen antzezlan komikoa.

Mikel Martinez (Arinzano/ Nafarroa) aktore "bilbotartuak" antzerki-gintzaz eta antzezlanaz berba egin digu, bere lana gogoz egiten duen artista baten indarrez eta umorez.

Egun baten Printzipalen eta hurrengoan Gaztetxean...

Primeran. Pilotalekuak kenduta edozein leku da ona muntai honetarako. Gaztetxeetan antzokietan bezain ondo. Publikoa baldin badago edonon. Publiko beroa bada hobe, bestela guk berotzen dugu.

25 urte daramat antzerkia euskaraz egiten Euskal Herrian. Inoiz baino hobeto dago. Ez dakit zenbat obra egiten diren. Inoiz baino gehiago. Konpetentzia handia dago eta ez baduzu asmatzen ez duzu piperrik ere saltzen. Jendeak badauka non aukeratu.

Ze jende mota doa antzerkira?

Jende mota? Emakumezkoak gizonzkoak baino gehiago. Hori beti. Orohar esan daiteke antzerkian arrakasta gehien daukana telebistatik datorrena dela. Eta genero aldetik komedia, umorea.

Ze egoeratan dago euskal antzerki-gintzaren harrobia?

Uste dut beharrezkoa dela antzerki eskola on bat, profesional onek gidatua eta ondo planifikatua. Jende askok eskatzen du hori eta uste dut laster antzerki eskola moduko bat izango dugula.

"Munduko euskaldunberririk zaharren horiek euskara errazago baten aldeko manifestoa zoro bat irakurtzera doaz antzokira"

Soraluzeko areto bakarrak, Abade-
txeko Kapila eta Gaztetxea dira.

Ez dakit Soraluzeko egoera zein den baina herrietan areto txiki asko zabaltzen ari dira eta hor badago oso zirkuitu polit bat, leku txiki horietara publiko pila bat hurbiltzen delako.

Aspaldian ez dugu Euskal Telebistan telesail berririk ikusi.

MOTZIAN

Aktore on bat.

Asko.

Gidoigile on bat.

Parkatu baina, euskal herrian, behintzat, Patxo Telleria. Onena da, dudarik gabe.

Antzoki on bat.

Terrassa (Kataluina).

Munizipala da eta gestore ofizial bat dago, baina benetako gestioa talde amateur handi batek eramaten du. Benetako herri antzokia da, eta beti dago beteta.

Gaztetxeak.

Emanaldi zoragarriak egin ditugu gaztetxetan.

ETB

Ze lan polita eta inportantea egin zezakeen euskara, kultura eta bizitzaren alde!

Kultur Errota

Hori da, bai, mugimendua da behar dugu.

Aktoreontzako eta teatorako oso garrantzitsua da telebista. Lana ematen digu eta, lehen esan dudan moduan, gure obrak saltzen laguntzen digu. Zergatik ez den telesail gehiago egiten? Ez dakit, ez dut telebistaren gestioaren mundua ezagutzen.

Zer esan nahi du "euskara sencilloa"-k?

Lan honetako umorea oso ironikoa eta absurdo xamarra da. Munduko euskaldunberririk zaharren horiek euskara errazago baten aldeko manifestoa zoro bat irakurtzera joaten dira antzokira. Hori da haien helburua, eta egin egiten dute... adar barragarri batzuetatik desbideratu ondoren.

Noiz estrenatu zen obra? Zenbat emanaldi eskeini dituzue?

Orain dela lau urte Korrika-AEKak "Komeriaka" ikuskizuna muntatu zuen. Bertan Patxo eta biok "munduko euskaldunberririk zaharrenak" bezala agertzen ginen. Pertsonaiak osatu eta "Euskara Sencilloaren Manifestoa" (ESM) muntatu genuen. Obra Patxorena da. Patxo eta biok urtetan egon gara elkarrekin Maskarada barruan, baina bikote honetarako beste talde bat sortu dugu: "Ez dok hiru Bikoteatroa". Bi urte terdi daramagu ESM honekin eta 150 emanaldi eginak. Marka bat, sinistuidazu.

Zer esango zenieke soraluzetarrei zuten antzezlan ikustera hurbildu daitezen?

Joaten badira oso oso ondo pasatuko dute, bizitza osoan gogoratuko dute eta beti esan ahal izango dute: Nik bi zoro haiek ikusi nituen.

Ez badira joaten hurrengo egunean ez dute gogoratuko zer egin zuten betikoa egin zuten ordu horretan.

SORALUZE MAILAZ JEISTEKO ARRISKUAN



Karambola batek bakarrik salba dezake Sora azken jardunaldian

Soraluze futbol taldea lehenengo Serregionaleko maila galtzeko arrisku larrian da joan den larunbatean aurkari zuzen baten aurka galdutuan. Liga bukatzeko partidu baten faltan, azkenetik hasita bigarren da Sora eta kategoria azken 3ek galtzen

dute. Azkenetik hasita 3. lekuan da goen taldeak baino puntu bat gutxiago dauka Sorak eta 4. ak baino 2 gutxiago. Igandean Ilintxaren kontrajokatu beharreko partidua irabazi eta besteek kale egitea besterik ez zaio geratzen Sorari.

Eibartarrak garaile pala txapelketan

Pala txapelketako finala eta 3. eta 4. postua maiatzaren 6an jokatu ziren kiroldegian. Finalean, argazkian ageri diren Eneko eta Iban eibartarrek 35-22 hartu zituzten mendean Calles aita-semeak. 3. Postua Orbe eta Martinezek eskuratu zuten Ibabe-Unamuno bikoteari 35-34 irabazi ostean.



EMAITZAK

FUTBOLA

Sora 0 - Ikasberri 2 (erreg.)

Sora 0 - Amaiak Bat 10 (jub.)

Bergara 14 - **Sora 0** (kad.)

ESKU PILOTA

Aitor Atxotegi

Itziarko 4 1/2ko txapelketan, 22 - 21 irabazi zion Etxeberriari.

Txurrukakin 22 - 5 irabazi Uberuaga - Sanzi. Deba arroko txapelketan 22 - 2 irabazi Elorza - Garateri

Iñaki Jauregi

Mallabin Julen Retegirekin 22 - 15 irabazi García-Beobideri.

Irunen, Jon Zabalaekin 22 - 7 irabazi Nafarroako bikoteari kontra.

Haritz Laskurainek eskuko minez jarraitzen du

Asier eta Iñakiren omenezko

txapelketa: bikote zozketa egin da eta asteburuan jokatuko dira lehenengo partiduak San Andresen

Gipuzkoako 3 txirlo bolo txapelketako hurrengo jardunaldia Ezoziko bolatokia jokatu da Zapatu honetan.

AGENDA

Mendi irteera maiatzaren 15ean Arantzazuko Pinpil (1279 m) mendira egingo da.

FUTBOLA

Ilintxa - **Sora** (erreg.)

Igandean Legazpin 17:00etan

Allerru - **Sora** (jub.)

Larunbatean Lezon 16:00etan.



TXURRUKA
JATETXEA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE



VIDAL
frutadenda

Etxaburueta 2
Tel. 943752055



kutxa
gizarte ekintza

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Nerea Rodriguez

Lilura estetika zentro berria Gabolats kaleko 12. zenbakian ireki du Nerea Rodriguez estetizienak. Bertan, emakume zein gizonzkoendako edertasun tratamenduak eskeintzen ditu 21 urteko Soraluzetar honek. Lokala inauguratu eta hurrengo egunean izan gara berarekin, eguneko azken bezeroa agurtu duenean.

- Zer moduz lehenengo eguna?

Gelditu barik ibili naiz.

Hurrengo egunak be hartuta dakara egunian zihar jente asko etorri da eta ordu eske.

- Estetizien moduan esperientziarik badakazu?

Bai, 2 urte eta erdiko esperientzia daukat herriko beste zentru baten eta jentia ya ezagutzen nau.

“gizonezkuak be hasitta dare lotsak galtzen”

- Ze bezero mota etortzen jatzu?

Danetarikua. Gaztienak 12 urte eukiko dittu eta zaharrena 80 bat.

- Gizonezkuak be animatzen dira?

Bai, gizonezkuak be hasitta dare lotsak galtzen. Kanpotik be etortzen dira batzuk baina gehixenak plazentziatarak dira. Etortzen diranak lotsarik barik etortzen dira gainera, ez behintzat ezkutuan.

- Uda alderako zer nahi izaten dau jentia?

Askok depilatzera etortzen dira. Beste asko, berriz, bikini-ope-



Nerea Rodriguez

Bertso Begiz

*Batzuk buruko ileak
erori ta galdu
beste asko hanketatik
nahi dituzte saldu
kanpoko nortasunak
garrantzirik badu
baina barrukoak pixkat
gehiago ez al du ?*

Etxebarri

(Doinua: Maritxu nora zoaz)

raziñuakin hasten dira apirilla aldian, eta horrek gorputz tratamenduak nahi izaten dittue

- Zenbat denborako saiuak izaten dira?

Gorputz tratamendu saio bat, esaterako, ordu eta erdikua; azal garbiketia be bai. Betuliak tintau eta kiskurtzia ordubetukua...danak antzera.

- Zein da eskeintzen dozuen zer-

bitzurik ezezagunena?

Udan gero eta gehixago ikusten dira behatzetako atzazkaletan dibujuak eta hori be hamen egitten dogu.

- Zuk be zaintzen dozu zure burua?

Denboria dakatenian bai. Masajiak ezin dotsara emon nere buruari, baina bestela neu be zalia naiz, bai.

ELIZpE

h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

FER. S.A.
Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



Iturria: Cristina Alberdi

Kintadia 60. Hamarkadan

Aldameneko argazkian ageri diran Plazentziatarretatik bi bakarrik dare bizirik. Hirurogeigarren hamarkadan, despedida bat egiteko alkartu ziran kinta bereko gizaseme honek.

Goixan ezkerretik eskumara:

Nicolas Ariznabarreta (+), Jose Laskurain "Argate" (+), Jesus Iraeta (+), ((?)), Ignacio Orbea (+), Miguel Murua (+), Jose Mari Unamuno (+), Lino Albisua "Lesarri" (+), Jose Mari Igarzabal "Arzabalaga" (+), Juan Zabaleta (+), Arluziaga (+), Eulogio Arzuaga (+).

Behian ezkerretik eskumara:

Felipe Vila (+), Txintxurreta (+), Felix Etxaniz "Arruza", Eugenio Artolazabal (+) eta Roque Treviño.

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?

**Bi lagunendako
afari mundial bat
irabazi zeinke!!**

Deitu

943 75 13 04 ra

**Aurreko
alean...**



Erantzuna...:
leiho gaineko arkua.

...eta irabazlea:

Maite Dominguez

**TXOKO
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarran 22. behea, telf: 943751789

JABIER ALBERDI



KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

Ion Murgizu Pinturak

- Margoketa orokorrean -

Empapelatuak,

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

Telefona 943751324

Mugikorra 652777030

Ezoziko etorbidea 24 2 behea

20590 Soraluze



LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea

Telf.: 943 75 25 57

Fax: 943 75 25 56

20590 SORALUZE

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak



Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazoen distiratzeta

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak



autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**

Nola egin online finantza erakundeekiko eragiketak

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Ordainketak, transferentziak, mugimenduak,... Edozein unetan eta banketxera joan beharrik gabe egin ditzakezu zure eragiketak Internet bidez, diru eta denbora gutxiago erabiliz.

Deba Barrena
maiatzak 19
ELGOIBAR
Máquina Herramienta
BHI (IMH)

Ordutegia: **18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:

902 252 595

www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Antolatzailea:



Miramon
Enpresa Digitala